


LGTBI+ EKINTZA PLANAREN JARRAIPEN TXOSTENA 2021 DEPARTAMENTUAK



Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. PLANAREN 2021eko EKINTZAK ARDATZEN ARABERA	3
2.1. 2021eko ekintzak betetzearen grafiko orokorrak	4
2.1.1. ZEHARKAKO ekintzak “Bukatuta edo martxan”.	4
2.1.2. BAKARKAKO ekintzak “Bukatuta edo martxan” ardatzen arabera	5
3. “MARTXAN” DAUDEN EKINTZEN BERRIKUSPENA 2021 – DEPARTAMENTUAK	8
3.1. ZEHARKAKO ekintzak 2019-2020 – DEPARTAMENTU GUZTIAK	8
3.2. Ekintza ZUZENAK (departamentu bakoitzari).	13
4. 2021ean HASI GABEKO EKINTZEN XEHETASUNAK	19
5. LABURPEN KOADROA	23
6. EKINTZEN BERRIKUSPENA – 2019-2021 azterketa bateratua	24
7. EMAITZEN AZTERKETA BATERATUAREN ONDORIOAK	26

1. SARRERA

LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legeak pertsona horien eskubideen egiazko berdintasun eraginkorra erabat bermatzeko printzipioak, bitartekoak eta neurriak ezarri eta arautzen ditu. Hori guztia sexu orientazioan, genero adierazpenean eta sexu edo genero identitatean oinarritutako bazterkeria prebenitu, zuzendu eta ezabatzearen bidez egiten da, Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak diren eremu publiko zein pribatuetan.

Aniztasunaren ikuspegia integratzera eta LGTBI+ pertsonen beharrei erantzutera bideratutako ekintza instituzionala garatzeko, Ekintza Plan bat prestatu zen. Ekintza plan hori 2019ko maiatzaren 22ko gobernu bilkuran onartu zen, eta urte bereko ekainaren 24ko NAOren 121. zenbakian argitaratu zen.

Planaren xedea hiru helburu nagusitan banatuta dago:

- Nafarroako ekintza instituzionalean modu sistematikoan eta orokorrean txertatzea LGTBI+ pertsonen premiei eman beharreko arreta eta sexu eta genero aniztasunaren ikuspegia.
- Administrazioan lan egiten duten profesionaleri trebakuntza ematea, ekintza instituzionala eta erantzuna egokiak izan daitezen.
- Gizartearen eraldaketa sustatzea sentsibilizazioaren bidez eta berdintasunean, errespetuan eta sexu eta genero aniztasunaren eta aniztasun afektiboaren onarpenean oinarrituta, eta LGTBI+ pertsonen parte hartzea behar bezala antolatzea.

Planean sartzen dira ekintza publikoaren **eremu** desberdinetan lortu nahi diren **helburuak**, hartu beharreko **neurriak** eta **erantzukizun** esleipena.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuko (aurrerantzean NABI) LGTBI+ Berdintasun Zuzendariordeak Plana onetsi zenetik departamentu desberdinek egin dituzten ekintzen jarraipena egin zuen, 2019ko bigarren seihilekoan eta 2020ko urtean, Nafarroako LGTBI+ Kontseiluari 2021eko azaroaren 2an aurkeztu zitzaion lehenengo ebaluazio txostenean. Oraingo honetan, Nafarroako Gobernuak Departamentuek 2021ean egindako ekintzen jarraipenari dagokion ebaluazio txostena egin da.

2021a ere COVIDaren pandemiaren eraginpean egon da, 2020an gertatu zen bezala. Departamentuen lana egoera horrek baldintzatu du.

2021ean ekintzak egin dira, batzuk “bidean” direnak eta beste batzuk “bukatuta”, ondoko departamentu hauetan:

- Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barnea (Nafarroako Berdintasunerako Institutua eta Nafarroako Gazteriaren Institutua).
- Eskubide Sozialak (Haurrak eta Familia, Garapenerako Lankidetzak, Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Nafarroako Autonomia eta Pertsonen Garapenerako Agentzia).
- Osasuna.



- Hezkuntza.
- Kirola eta Kultura.
- Landa Garapena eta Ingurumena.
- Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala.
- Herritarrekiko Harremanak (Nafarroako Memoriaren Institutua).
- Migrazio Politikak eta Justizia.
- Ekonomia eta Ogasuna.
- Garapen Ekonomikoa eta Enpresariala.

2. PLANAREN EKINTZAK 2021ean ARDATZEN ARABERA BANATUTA.

Ekintza Planak, 2021erako, guztira **23 ekintza** esleitzen dizkie Nafarroako Gobernuko departamentuei, eta **departamentu batek edo batek baino gehiagok** egitekoak izan daitezke. Horrez gain, **zeharkako 7 ekintza ere ezartzen dizkie** departamentu guztiei.

Ekintza horiek guztiak daude planaren lau ardatzetan oinarrituta:

- 1. ardatza. Ekintza instituzionala.** (16 ekintza)
- 2. ardatza: Prestakuntza eta gaikuntza** (ekintza bat)
- 3. ardatza: Sentsibilizazioa eta parte-hartzea** (11 ekintza)
- 4. ardatza: LGTBI+ pertsonendako arreta** (2 ekintza)


Lau ardatz estrategiko horiek **hainbat esku-hartze eremutara hedatzen dira:**

- Hezkuntza.
- Bizi zikloak.
- Eskubide sozialak eta zaugarritasunak.
- Osasuna eta sexu eta ugaltze eskubideak.
- Lan eremua.
- Aisialdia, kultura eta kirol jarduera eta jarduera fisikoa.
- Memoria.
- Segurtasun publikoa.
- Garapenerako nazioarteko lankidetzak.

2.1. 2021eko EKINTZEN BETETZE MAILARI BURUZKO GRAFIKO OROKORRAK

2.1.1. “Gauzatuta edo martxan” dauden ZEHARKAKO ekintzak

- **ZEHARKAKO ekintzen grafikoa:** Guztira 7 ekintzetatik, 6 bidean dira departamenturen batean, eta 1 ez da hasi bakar batean ere.




Iturria: *guk geuk egina*, Nafarroako Gobernuako departamentuek emandako datuetan oinarrituta. NABI (2022).

- **ZEHARKAKO ekintzen betetze mailari buruzko koadroa, ardatzetan banatuta.**

ARDATZAK	EKINTZAK GUZTIRA	BUKATUTA EDO MARTXAN DAUDEN EKINTZAK	BAZTERTUTAKO EKINTZAK	HASI GABEAK	GAUZATZE MAILA (%)
1. ardatza. Ekintza instituzionala	5	4	-	1	% 80
2. ardatza. Prestakuntza eta gaikuntza	0	0	-	-	-
3. ardatza. Sentsibilizazioa eta parte-hartzea	2	2	-	-	% 100
4. ardatza. LGTBI+ pertsonendako arreta	0	0	-	-	-
GUZTIRA	7	6	-	1	% 85,7

Iturria: *guk geuk egina*, Nafarroako Gobernuako departamentuek emandako datuetan oinarrituta. NABI (2022).

2.1.2. “Bukatuta edo martxan dauden” BAKARKAKO ekintzak, ardatzen arabera



Iturria: guk geuk egina, Nafarroako Gobernuako departamentuek emandako datuetan oinarrituta. NABI (2022).

Planak **bakarka** egiteko 23 ekintza ezarri dizkie departamentuei 2021erako, eta 12 egin dituzte (batzuk “bukatuta” daude, eta beste batzuk “martxan”). Hau da, ekintzen gauzatze maila **% 65,8koa** izan da.


BAKARKAKO ekintzen betetze mailari buruzko koadroa

ARDATZAK	EKINTZAK GUZTIRA	BUKATUTA EDO MARTXAN DAUDEN EKINTZAK	BAZTERTUTAKO EKINTZAK	HASI GABEAK	GAUZATZE MAILA (%)
1. ardatza. Ekintza instituzionala	11	6		5	% 54,54
2. ardatza. Prestakuntza eta gaikuntza	1	1	-	-	% 100
3. ardatza. Sentsibilizazioa eta parte-hartzea	9	4	-	5	% 44,44
4. ardatza. LGTBI+ pertsonendako arreta	2	1	-	1	% 50
GUZTIRA	23	12		11	% 52,17

Iturria: guk geuk egina, Nafarroako Gobernuako departamentuek emandako datuetan oinarrituta. NABI (2022).


DEPARTAMENTUEK 2021ean EGIN DITUZTEN BAKARKAKO EKINTZEN EHUNEKOAK, ARDATZEN ARABERA BANATUTA.

*1. ardatza. Ekintza instituzionala: 11 ekintza; 6 bukatuta edo martxan, eta 5 hasi gabe.




Iturria: guk geuk egina, Nafarroako Gobernuako departamentuek emandako datuetan oinarrituta. NABI (2022).

*2. ardatza. Prestakuntza eta gaikuntza: ekintza bat; bat martxan




Iturria: guk geuk egina, Nafarroako Gobernuako departamentuek emandako datuetan oinarrituta. NABI (2022).

***3. ardatza. Sentsibilizazioa eta parte-hartzea:** 9 ekintza; 4 martxan edo bukatuta, eta 5 hasi gabe.



Iturria: *guk geuk egina*, Nafarroako Gobernuko departamentuek emandako datuetan oinarrituta. NABI (2022).

***4. ardatza. LGTBI+ pertsonendako arreta:** 2 ekintza; 1 bukatuta edo martxan, eta 1 hasi gabe.



Iturria: *guk geuk egina*, Nafarroako Gobernuko departamentuek emandako datuetan oinarrituta. NABI (2022).

3. DEPARTAMENTUETAN “MARTXAN” DAUDEN EKINTZEN BERRIKUSPENA (2021)

3.1. ZEHARKAKO ekintzak (2021) – DEPARTAMENTU GUZTIAK

Ondoren, planak “departamentu guztiei” esleitzen dizkien **zeharkako ekintzak** zehazten dira. Ekintza bat izan ezik (aurrerago zehaztuko dugu, “egin ez diren” ekintzak azaltzean), gainerakoak (6) “martxan” edo “bukatuta” daude departamentuetako batean.

Ekintzak deskribatzen direnean ekintza planaren eskema bera erabiltzen da eta, **ardatzez** gain, ekintzen **helburuak** eta hartuko diren **neurriak** ere aipatzen dira, baita **aplikazio eremua** ere, behar denean, planaren barruan ekintza aurkitzen laguntzeko.

Ekintzaren deskribapenaren ondotik, ekintzari buruz departamentu bakoitzak helarazi digun erantzuna zehaztuko da. Salbuespenak izan diren arren, orokorrean, departamentuek ez dute proposatutako adierazleei buruzko aipamenik egin. Gehienak azalpen kualitatiboak izan dira, ekintza martxan, bukatuta edo baztertuta zegoen adieraziz.

1. ARDATZA - EKINTZA INSTITUZIONALA

1. **HELBURUA** Berdintasun eraginkorra zeharkako lan ildoak bihurtzea, eremuka

1. **N.** Orientazio sexualari eta genero edo sexu identitateari buruzko gaitako araudia eta ibilbide orri espezifikokoak osatzea.

• **2. ekintza. Sexu eta genero aniztasuna lantzen duten ekintzak garatzeko eta toki esparruko ibilbide orria** osatzeko bultzada. Horretarako, handituko da LGTBI+ berariazko ekintzak dituzten Nafarroako erakunde publikoen kopurua, eta LGTBI+ pertsonen gizarte berdintasunaren printzipioa toki entitateetan zeharkako printzipioa bihurtuko da.

NABI: Martxan

1.-2021ean, NABIk, kanpoko enpresa baten bidez (Kalidadea), azterketa bat egin du Nafarroako toki entitateen egoera aztertzeko, LGTBI+ ikuspegia haien ekintza instituzionalean txertatzeko (beharrak, oztopoak, dituzten baliabideak, etab.). Azterketari izen hau eman zaio **“Sexu et genero aniztasuna (LGTBI+) Nafarroako Foru Komunitateko toki erakundeetan aintzat hartzeko azterketa estrategikoa”**.

Diagnostiko horren helburua izan da ibilbide orri bat ezartzea, toki erakundeek ikuspegi hori jaso dezaten beren udaletan. Txostena ezagutarazi zaie toki erakundeetako teknikariei eta politikariei, 2022ko otsailean egindako jardunaldi batzuen esparruan.

2.-2021ean, lehen aldiz, NABIk toki erakundeentzako dirulaguntzen lerro berri bat sortu zuen. Helburua da LGTBI+ diagnostikoak, tokiko planak, azterketa sektorialak edo urteko programazioak sustatzea, herritarrei LGTBI errealitatearen berri emateko eta horren inguruko sentsibilizazioa lantzeko. Lehen urte honetan 9 toki entitate aurkeztu ziren (Zizur Nagusia, Tafalla, Viana, Oltza Zendea, Tuter, Deierri, Corella, Cintruenigo eta Iruña).

2. N. Sexu eta genero aniztasuna laneko prozedura eta prozesuetan txertatzea, izan barrukoetan zein kanpokoetan.

- **5. ekintza. LGTBI+ pertsonen errealitateari buruzko azterlanak eta ikerlanak egitea.** Planteamendua da errealitate hori (LGTBI+, LGTBI+fobia eta abar) sakontzen eta hobetzen lagunduko duten azterketa eta ikerlanak, edozein esparruri buruzkoak, egiteko eta/edo halakoak egiten laguntzeko lan egitea.

HERRITARREKIKO HARREMANAK: Martxan

"**LGTBI kolektiboaren errepresioa frankismoan**" gaiari buruzko txostena. Txostenaren laburpena webgunean bakeaetabizikidetzana.navarra.es Txostena osorik, kontsultatu nahi izanez gero, Nafarroako Memoriaren Institutuko Dokumentazio Zentroan dago eskura.

NABI: Martxan

Tokiko erakundeei buruzko diagnostikoa egin da, udaletan LGTBI+ politikak aurrera eramateko estrategia bat ezarri ahal izateko.

LGTBI+ genealogia ere egin da, 1978tik gaur arte, LGTBI+ arloan lortutako aurrerapen sozialen eta eskubideen alde borrokatu ziren pertsonen lekukotza jaso eta gordetzeko.

HEZKUNTZA: Martxan

Harremanetan gaude ebaluazioa egiteko, dagokigun legeak adierazten duen bezala.

- **9. ekintza. Genero ikuspegia eta sexu eta genero aniztasuna jasotzea hitzarmen eta zerbitzu publikoetan**

EKONOMIA ETA OGASUNA: Martxan

Erantzuna: Nafarroako Aurrekontu Orokorretan genero ikuspegia aztertzen jarraitzen da, urtero eransten diren aurrekontu programen bidez.

UNIBERTSITATEA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA: Martxan

Erantzuna: Genero ikuspegia eta sexu eta genero aniztasuna jaso ditugu, gure jarduerak egiteko beste erakunde batzuekin sinatzen ditugun hitzarmenetan.

NABI: Bukatua

NABIk egindako hitzarmen guztietan kontuan hartzen da sexu eta genero aniztasuna. Gainera, departamentu guztiei orientazioa eta aholkularitza ematen dizkiegu, LGTBI+ pertsonen errealitatea kontuan hartzeko, beren dokumentazioa egokitzeari buruz.

FAMILIA ETA ADINGABEAK: Bukatua

Erantzuna: 2021ean lizitatu eta esleitutako "Adingabeen Gizarte Ituna" dokumentuan, genero ikuspegia eta sexu eta genero aniztasuna kontuan hartu eta baloratu dira.

2. HELBURUA. Instituzioen arteko koordinaziorako mekanismoak ezartzea

1. N. LGTBI+ pertsonen berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea.

- **3. ekintza.** Beste administrazio, entitate eta erakunde batzuekin **esperientziak eta jardunbide onak trukatzeko ekitaldietan parte-hartzea eta lankidetzak sustatzea.**

MIGRAZIO POLITIKAK ETA JUSTIZIA: Martxan

Erantzuna: Errefuxiatuen Egunaren inguruan egindako IHES EGIN BIZITZEKO erakusketak ikusarazten ditu LGTBI izateagatik beren herrialdeetatik ihes egin behar duten pertsonak.

HERRITARREKIKO HARREMANAK: Bukatua

Erantzuna: Ekintza horiek ez dira martxoaren 31ren inguruan egin, urte osoan barna baizik. Bizikidetzak eta Giza Eskubideen Zerbitzuak Giza Eskubideen arloan egindako ekintzak:

- 1.-"ELKARBIZITZEA GORROTORIK GABE IDAZTEN DA" webinarra "Gorrotzoko diskurtsoak" gaiarekin; beste errealitate batzuekin batera, LGTBI+ gaia landu zen.
- 2.-NAIZEN elkarteak dinamizatutako jarduerak, GIZA ESKUBIDEEN EGUNEKO karpan: "ESKUBIDE GUZTIAK PERTSONA GUZTIENTZAT".

Nafarroako Memoriaren Institutuak egindako ekintzak:

- 1.-"LGTBI kolektiboaren errepresioa frankismoan" txostena aurkezteko ekitaldia eta mahai-ingurua LGTBI+ memoria eta errepresioari buruz
- 2.-Giza Eskubideen astean "EDDYREKIN BUKATZEKO " antzezlan, bullying eta homofobiari buruzkoa, ikasleentzat eta publiko guztiarentzat.

Programa "Memoriaren Eskolak Bakearen eta Bizikidetzaren alde".

- 1.-"ANIZTASUNA" antzerki Foruma ikastetxeetan, LGTBI + gaia barne.
- 2.-"EDDYREKIN BUKATZEKO" antzezlana, ikastetxeei eskainia.
- 3.-Dramaturgia tailerra ikastetxeetan, aurreko antzerki lanaren eta haren balioen inguruan.
- 4.-Ikastetxeetan sexu identitatearekiko errespetua lantzeko unitate didaktikoa.

NABI: Martxan

Esperientziak eta praktika onak trukatzeari dagokionez, aipatu behar da Errioxako Gobernuaren ordezkari batek Nafarroa bisitatu zuela Kattalinguneko zentroa ezagutzeko eta esperientziak trukatzeko, auzo erkidegoan antzeko zentro bat bultzatzeko.

Bestalde, bi bilera egin dira Berdintasun Ministerioan Sexu Aniztasunaren eta LGTBI Eskubideen zuzendari nagusiarekin eta gainerako autonomia erkidegoetan LGTBI+ politikan eskumenak dituzten gainerako pertsonekin. Bilera horien helburua da esperientziak partekatzea eta LGTBIfobia areagotzeari buruzko iritziak trukatea.

3. ARDATZA – SENSIBILIZAZIOA ETA PARTE-HARTZEA

1. **HELBURUA.** Sexu eta genero aniztasunaren balioak txertatzea, ikusaraztea eta herritarrei erreferenteak ematea.

1. **NEURRIA:** herritar oro sensibiltzatzea.

- **3. ekintza. Martxoaren 31rako (Trans Ikusgarritasunaren Eguna) eta LGTBI+ eremuan nabarmendu diren beste data batzuetarako sensibiltzazio ekintzak eramatea aurrera, herritarrak beste LGTBI+ errealitate batzuez sensibiltzatuz eta errealitate horiek ikusarazteko.**

NABI: Prozesuan

Sensibiltzazio ekintzak egin dira maiatzaren 17an eta ekainaren 28an. Horien berri iristen da Nafarroako Gobernuako departamentu guztietara eta Foru Komunitateko udalerririk guztietara, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bidez. LGTBI+ Berdintasunerako Zuzendariordetzaren aurrekontuak gora egin ahala, beste efemeride batzuetan sensibiltzazio ekintzak egiteko aukera gehiago zabaltzen ari dira.

LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA: Martxan

Erantzuna: Etengabe egiten den ekintza SEXU ETA GENERO ANIZTASUNARI BURUZKO OINARRIZKO GIDA zabaltzea da. Horren hedapena egiten da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Nafarroa osoan dituen 23 lurralde bulegoen bidez. Halaber, jendaurrean egonen da eta Departamentuaren egoitzako herritarren arretarako erakusmahaian, eraman nahi duten pertsona guztien eskura.

2. HELBURUA. LGTBI+ pertsonen parte-hartzea antolatzea.

1. NEURRIA: LGTBI pertsonen eta elkarten parte-hartzea bultzatzea.

- **3. ekintza. Irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateentzako dirulaguntzen deialdia, sexu eta genero aniztasuneko proiektuen garapena sustatzeko, barne direla memoria historikoa, ikerketa, nazioarteko lankidetzeta, osasuna.**

NABI: Bukatua

2021ean berriz ere ireki da irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateei LGTBI+ pertsonen gizarte berdintasuna bultzatu eta hobetzeko proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen deialdia. Aurten 6 elkarte aurkeztu dira eta azken emakida 39.000 eurokoa izan da. Hedapenari dagokionez, aipatu behar da eskaera epearen hasiera postaz edo telefonoz helarazten zaiela NABIk ezagutzen dituen LGTBI+ elkartei.

OSASUNA: Bukatua

Erantzuna: Sustapen eta Heziketa afektibo-sexual komunitarioaren lerroa. Udal entitatei, elkartei eta irabazi asmorik gabeko federazioei zuzendua.

Sexu eta genero aniztasunaren ikuspegia kontuan hartzen duten 31 programa. Diru-laguntzen lerroak 176.000 euroko aurrekontua du.

Sostengu teknikoa ematen zaie posta, telefono eta aurrez aurreko bileren bidez Sustapen eta Hezkuntza Afektibo-sexual Komunitarioaren lerroa aurkezten diren proiektuei.

3.2. Ekintza ZUZENAK (departamentu bakoitzari esleituak)

Jarraian deskribatuko dira planak 2021erako departamentu bakoitzari (edo batzuei) esleitzen dion ekintza bakoitza, eta orobat, departamentu horietan martxan direnak edo burutu direnak. Ekintza horien deskribapenean, ekintza planaren ardatz desberdinen arabera banatuta agertuko dira, eta haren eskema bera erabiltzen da, eta, ardatzez gain, ekintzen helburuak eta hartuko diren neurriak ere aipatzen dira, baita aplikazio eremua ere, hala behar denean, planaren barruan ekintza aurkitzen laguntzeko. Aipatzen dira, orobat, ekintza horren ardura izanen duten departamentuak, eta, azkenik, ekintzaren jarraipena egitean departamentu horiek emandako erantzuna.

Ekintza horren balorazioari dagokionez, “martxan” dagoela esaten da, departamentua horretan lan egiten ari denean edo planak iraun bitartean jarraitasuna izan behar badu. “Baztertutzat” jotzen da, hura egitea ez bada posible edo ez badagokio departamentu horri.

Apartatu honetan ageri dira bukatu diren edo “martxan” dauden ekintzak. Beste apartatu batean zehaztuko dugu zein ekintza ez diren egin 2019-2020 urteetan.

1. ARDATZA. EKINTZA INSTITUZIONALA

1. HELBURUA. Berdintasun eraginkorra zeharkako bihurtzea, eremuka

2. N. Sexu eta genero aniztasuna txertatzea barneko eta kanpoko laneko prozeduretan eta prozesuetan.

• 2. ekintza. **LGTBI+ errealitateari eta sexu eta genero aniztasunari buruzko edukiak sartzea enplegu publikoa eskuratzeko eta enplegu publikoan gora egiteko hautaketa prozesuetan, Administrazio Publikoko departamentu eta kargu guztietan, eta Administrazio Publikoko langileak LGTBI errealitateaz sentsibilizatzea.**

NABI, FUNTZIO PUBLIKOAN ARDURA DUTEN DEPARTAMENTUAK

NABI: Martxan

Administrazio Publikoko langileei trebakuntza eta sentsibilizazioa eskaintzeko, NAPIren oinarritzko ikastaroa egiten ari gara sexu eta genero aniztasunari buruz.

Azpimarratu behar da NABIk ez duela eskumenik hautaprobetan edukiak sartzeari dagokionez. Baditugu, ordea, aholkularitza mailako eskumenak, egin behar diren probetan eduki horiek sar daitezten.

FUNTZIO PUBLIKOA: Hasi gabe

3. N. Administrazioiko departamentuek biltzen dituzten hainbat eremutan sexu eta genero aniztasuna txertatzea.

HEZKUNTZA EREMUA

- **7. ekintza.** Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendurako araudia berrikusi eta egokitzea, LGTBI+ pertsonen berdintasun soziala txertatzeko.

HEZKUNTZA

HEZKUNTZA: Martxan

- **8. ekintza.** Unibertsitate publikoek prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak, azterlanak eta ikerketa proiektuak sustatzea, baita bereizkeriarik eza bermatzeko protokoloak ere.

HEZKUNTZA

HEZKUNTZA: Bukatua

Erantzuna (NUP): Berdintasun Planetik eta Unibertsitate Osasuntsuaren Planetik garatutako ekintzak:

1. Pertsona transgeneroen eta intersexualen izena aldatzeko protokoloa aktibatzea (behin)
2. LGTBI+ gaiari buruzko Nafarroako Gobernuaren kanpo kanpainak zabaltzea
3. "Lgtbi begirada bat" kanpo kanpainaren hedapena.
4. Nafarroako Gobernuaren materiala zabaltzea: "Sexu eta genero aniztasunari buruzko oinarrizko gida".
5. LGTBIQA+ Arrakalak gaiari buruzko mahai-inguruan parte hartzea CTIn, Prismak antolatuta.
6. Tratu oneko tailerrak, aniztasuna lantzeko.
7. Aniztasunaren aldeko unibertsitateen sarean parte hartzea, ekintza plan bat ezartzeko.
8. Izena aldatzeko prozedura zabaltzea, beren trantsizio prozesuen esparruan hala nahi duten LGTBI+ taldeko pertsoneri (Ikasleen harrera planean, AZLn eta IILn) (14.10 II. PIO NUP ekintza).

Ezin izan da sentsibilizazio ekintzarik egin, berdintasuna sustatzeko eta LGTBI+ pertsonen aurkako indarkeria ezabatzeko unibertsitateko jai eta aisialdi eremuetan (14.3 II. PIO NUP ekintza), 2021eko unibertsitateko karpak bertan behera geratu baitira.

BIZI ZIKLOEN EREMUA

- **1. ekintza.** *LGTBI+fobia sartzea adingabeak babesteko sistemetan arrisku adierazle gisa, eta zaintzea adinagatik bereziki ahulak diren LGTBI+ pertsonak ez direla diskriminatzen, eta LGTBI+ adingabeentzako bizi baldintza egokiak eta osoak sustatzea.*

FAMILIA/ADINGABEAK: Martxan

Erantzuna: Bai ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan, bai Haurren Foru Legearen egungo aurreproiektuan, berariaz jasotzen da adingabeak babesteko zentroetarako jarduketako protokoloak prestatu behar direla. Gure babes zentroetan dagoeneko ezarrita daude protokolo horiek.

AISIALDIAREN, KULTURAREN ETA GORPUTZ ETA KIROL JARDUERAREN ESPARRUA

- **2. ekintza.** *Kirol eremuan LGTBI+fobia desagerrarazteko lan prozesua garatzea, kirol inklusiboa eta bereizi gabea sustatuko duena eta kirol jarduerak berdintasun baldintzetan eta LGTBI+ errealitatearekiko errespetuan eginen direla bermatuko duena.*

KIROLA: Martxan

Erantzuna: Nafarroako Kirol Institutuaren Bitartekaritza Bulegoaren zerbitzua publikoa eta doakoa da, kirol sektoreari irekia, kirol arloan gertatzen diren egoera zail eta gatazkatsu guztiei erantzuna eta laguntza emateko.

Nafarroako Kirol Institutuaren web orrian atal berezi bat argitaratu da, "Kirola eta LGTBI+ kolektiboa" izenekoa, dokumentazio honekin:

- a) LGTBI+ kolektiboak kirol sektorean aintzat hartzea lortzeko tresnak
- b) Transexualitate kasuetarako hezkuntza protokoloa.
<https://www.deportenavarra.es/eu/deporte-y-colectivo-lgtbi>

SEGURTASUN PUBLIKOAREN EREMUA

- **3. ekintza.** *Protokolo bat diseinatzea LGTBI+ pertsonetarako tratua eta haien egonaldi egokia bermatzeko polizia eta justizia bulegoetarako, LGTBI+ fobia prebenitzeko modu gisa.*

BARNE DEP.: Bukatua

Erantzuna: Foruzaingoaren lan normalizatuko 3 prozedura aldatu dira, LGTBI+ pertsonetikiko tratu eta haien egonaldi egokiak bermatzeko gure esku-hartzeetan eta polizia etxeetan. Hona hemen protokolo horiek:

- ATXILOTUTAKO PERTSONEN ZAINZA OSPITALEAN
- ATXILOTUTAKO PERTSONEN ZAINZA POLIZIA ETXEETAN eta
- ATXILOTUTAKO PERTSONEN LEKUALDATZEAK.

Guztiak ere praktikan jarri dira inolako gorabehera aipagarririk gabe.

2. ARDATZA - PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA

1. **HELBURUA.** Profesionalak prestatu eta gaitzea

2. **NEURRIA.** Sexu eta genero aniztasunari buruzko berariazko prestakuntza ematea lotutako departamentu eta erakundeei.

- **1. ekintza.** Lotutako departamentu eta erakundeen gaitasun profesionalak bermatzeko berariazko edukiak prestatzeko aholkularitza, 8/2017 Legean jasotzen diren prestazioak eta zerbitzuak eman ditzaten

NABI, NAPI: Martxan

Sexu eta genero aniztasunari buruzko oinarrizko prestakuntza Nafarroako administrazio publikoko langile guztientzat, funtzionario nahiz behin-behineko, bai toki entitateetan, bai Nafarroako Gobernuan.

Eskaera egiten duten departamentu guztiei aholkularitza eta laguntza ematen diegu. Gaur egun, Kirol Departamentuarekin ari gara elkarlanean, kiroleko jazarpenaren aurkako protokoloa sortzeko. Halaber, Migrazio Politiketako Departamentuarekin, LGTBI+ errefuxiatuen arreta hobetzeko eta LGTBI+ gida sortzeko atzerritarrentzat.

NAPI: Baztertuta.

Erantzuna: NAPIren eginkizuna ez da trebakuntzako edukien prestaketan aholkularitza ematea. NAPIren eginkizuna da Administrazio Publikoetako langileen prestakuntza, birziklatzea eta hobekuntza antolatzea.

NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA: Martxan

2021ean berariazko prestakuntza garatu da Nafar Lanbide zerbitzuan, Erakundean gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko orientazio eginkizunak betetzen dituzten enpleguko goi mailako tituludunen lanpostuetarako. Prestakuntza hori oinarrizkoa izan da eta 30 ordu iraun du. Prestakuntza hori profesional

berberei zuzendutako beste ekintza batekin osatuko da, 2022an garatuko dena; horrek erraztuko die beren eginkizunak generoaren ikuspegitik betetzea, hau da, kolektibo jakin batzuei (genero indarkeriaren biktimak, LGBI, etab.) banakako arreta hobetzeko tresnak emanen zaizkie.

3. ARDATZA - SENSIBILIZAZIOA ETA PARTE-HARTZEA

1. HELBURUA. Sexu eta genero aniztasunaren balioak eta ikusgarritasuna txertatzea; herritarrei erreferenteak ematea.

2. NEURRIA: Herritarrak sentibilizatzea eremu espezifikoetatik LGTBI+ berdintasunaren eta sexu eta genero aniztasunaren inguruan

• **4. ekintza.** *Sexu transmisiozko eritasunen prebentzioko eta sexu heziketako kanpainak bultzatu eta egitea. Sexu transmisiozko infekzioak prebenitzeko neurrien erabileraz kontzientziatuz eta LGTBI+ pertsonen errealitate afektibo-sexualari erreparatuz*

OSASUNA: Martxan

Erantzuna: CASSYR-en, toki entitateen eta Europako entitateen bidez garatutako ekintza iraunkorretarako laguntza ematen da. Ikuspegia eguneratzeko ekintza hauek egiten dira: Sexu eta genero aniztasunaren ardatzeko ekintzak, prebentzio materialak, hezkuntzako materialak eta berariazko ekintzak.

2. HELBURUA. LGTBI+ pertsonen parte-hartzea antolatzea.

1. N. LGTBI+ pertsonen eta elkarten parte-hartzea bultzatzea.

• **2. ekintza.** *Nafarroako LGTBI+ elkarten erregistroa sortzea.*

NABI: Nafarroako Elkarten Erroldak zuzendariordetzari azaldu dionez, oztopo burokratiko ugari daude zentsu hori sortzeko. Aldiz, dagoen erroldatik "LGTBI+ elkarteak" fitxa sor daiteke, iragazki gisa erabiltzeko. Ildo horretatik, Nafarroako Elkarten Erroldarekin lankidetzan ari gara lanean.

• **4. ekintza.** *LGTBI+ elkarte eta erakundeetan adineko LGTBI+ pertsonen parte-hartzea sustatzea. Bide bat ireki da, LGTBI adineko pertsonen ikusgarritasuna sustatzeko, LGTBI+ adinekoentzako sozializazio eta elkarte espazioak errazteko, LGTBI+ adineko pertsonen bakardadea eta isolamendua murriztuz.*
NABI, PARTAIDETZA, ESKUBIDE SOZIALAK

NABI: Martxan

Irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakundeentzako dirulaguntzen 2021eko deialdian, “proiektuaren balorazio handiagoa” egiteko irizpidetzat hartu zen elkarte horretan izatea LGTBI+ adineko pertsonak eta elkartearen jardueretan haien parte-hartzea sustatzea. Diru-laguntza jasotzeko proiektua aurkeztu duten 6 elkarreetatik 3k 60 urtetik gorako pertsonak dituzte, eta guztiak, batek izan ezik, egiten dituzte haien parte-hartzea sustatzeko ekintzak.

PARTE-HARTZEA (Gobernu Irekia): Martxan

Erantzuna: Herritarren Partaidetzaren eta Boluntariotzaren Atalaren eginkizuna da Nafarroako Gobernu departamentuek abian jarri nahi dituzten parte-hartze prozesuetan aholku ematea eta laguntzea, hala eskatzen bada.

2021eko ekainaren 23an, 2021-2023ko Gobernu Irekiko I. Plana onartu zen, eta haren garapenean eta sustatutako parte-hartze prozesuan, berariaz lortu nahi izan zen LGTBI kolektiboko pertsonak izatea Plana prestatzeko fase desberdinetan eta aurrerapenen balorazioa egitean kontrastea egiteko herritar taldean. LGTBI+ Berdintasun Zuzendariordeztzaren lehenagoko arduradunaren laguntzarekin, prozesua zabaldu zen kolektiboko elkarreen artean, eta LGTBI+ pertsona batek parte hartu zuen eztabaida saioetako batean.

2. NEURRIA: Emakumeek LGTBI+ elkarte eta kolektiboetan duten parte-hartzea bultzatzea.

- **1. ekintza.** *LBT emakumeek LGTBI+ elkarte eta erakundeetan duten parte-hartzea sustatzea. Batetik, emakumeek LGTBI elkarreetan duten ikusgarritasuna sustatzeko eta, bestetik, haien parte-hartzea bultzatu eta ahalduz eremu kolektiboak eskaintzeko.*

NABI: Martxan

Zuzendariordeztzak urtero berritzen du LGTBI+ proiektuetarako diru-laguntza, Dekumas LBT-k parte hartzen duen elkarreetzat, eta LBT emakumeen ikusgarritasuna, batez ere kulturean eta kirolean, sustatzeko jarduerak diruz laguntzen ditu. Gainera, 2023ko diru-laguntzen oinarriari begira, atal berri bat gehituko da, LBT emakumeen parte-hartzea sustatzen duten erakundeei puntuak emateko.

4. ARDATZA - LGTBI+ PERTSONENDAKO ARRETA

1. HELBURUA. LGTBI+ pertsonendako arreta integrala bermatzea

1. N. LGTBI+ pertsonendako arreta zerbitzu publikoa bermatzea

- **2. ekintza.** *LGTBI+ pertsonen arretarako baliabideen eta zerbitzuen mapa egitea, LGTBI+ pertsonen laguntzeko dauden baliabide eta zerbitzuak bai publikoak, bai gizarte ekimenekoak, identifikatzeko, Nafarroako Foru Komunitate osoan.*

NABI: Bukatua

NABIren webgunean (www.igualdadnavarra.es) berdintasuneko nahiz LGTBI+ gaietako baliabideen geolokalizaziorako fitxa bat sortu da. Foru lurraldeko mapa bat da, eta eremua eta baliabide mota hauta daitezke hor. Fitxa batean Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako elkarteak agertzen dira, bai eta LGTBI+ pertsoneri laguntzeko dauden baliabideen datuak eta lotura ere. Baliabide hori urtero eguneratuko da.

4. 2021ean HASI GABEKO EDO BAZTERTUTAKO EKINTZEN XEHETASUNAK

Ondoren, departamentuek 2021ean hasi ez dituzten ekintzak zehazten dira (11 zuzenekoak eta 1 zeharkakoa). Planaren ardatzen arabera sailkatu eta banatu dira. Azkenean, hasi ez den zeharkako ekintza bakarra gehitu da.

1. ARDATZA: EKINTZA INSTITUZIONALA

- 1. ardatza. **1. helburua. 1. N. 1. ekintza**

Inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudia sustatzea, sexu orientazioaren, genero adierazpenaren eta sexu edo genero identitatearen inguruan, eta inpaktuaren gaineko ebaluazio hori egiteko gida bat diseinatzea. Horren bidez, beren ikuspegian sexu orientazioa, genero adierazpena eta sexu edo genero identitatea atxiki duten arauen edo administrazio egintzen ikusgarritasuna bermatzen da. Arau edo egintza administratibo bat egiterakoan LGTBI+ pertsonen errealitate desberdinak zein neurritan hartzen diren kontuan baloratzen da.

NABIk hasi gabea

- 1. ardatza. **1. helburua. 3. N. Osasunaren eta sexu eta ugalketa eskubideen eremua. 3. ekintza**

Osasun azterketak egitea sexu eta genero aniztasunaren ikuspegitik, erabiltzaileen arreta hobetzeko eta LGTBI+ errealitateari buruzko ezagutza zabaltzeko.

Osasun Departamentuak hasi gabea:

- 1. ardatza. **1. helburua. 3. N. 4. ekintza**

Osasunari eta sexu eta ugaltze eskubideei buruzko gida egitea emakume lesbiana, bisexual eta transexualentzat.

Osasun Departamentuak hasi gabea:

1. ardatza. **1. helburua. 3. N. Lan eremua. 3. ekintza**

Sexu eta genero aniztasunaren gaia kontuan hartuko duten enplegu politika publikoak garatzea. Enpresek bereizkeriarik gabeko praktikak egin ditzaten bultzatzea, eta LGTBI+ pertsonen berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa errespetatzen duten enpresa erreferenteak sortzea.

Ekintza honen adierazlea da aipamen bereizgarri bat sortzea enpresa erreferenteentzat.

Nafarroako Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Zerbitzuak hasi gabea.

1. ardatza. **1. helburua. 3. N. Aisialdiaren, kulturaren eta kirol jarduera eta jarduera fisikoaren eremua. 5. ekintza**

LGTBI+ errealitatea atxikitzea kultura plan eta azterketetan. Errealitate hori jasotzea planetan, kultura behatokitetan eta azterketetan, sexu eta genero aniztasuna aitortuz eta LGTBI+ errealitatea eta haren adierazpideak balioan jarritz.

Kultura Departamentuak hasi ez badu ere, laguntzak eman dira enpresentzat eta profesionalentzat, LGTBI+ gaien inguruko argitalpenak egin ditzaten:

- Errementari SL - Lanen izenburua - (h) maitasuna 6 Trans eta Ametsa eta iraultza
- 1978 Katakarak Kooperatiba - Titulua - Eskuin muturraren genero gerrak.

3. ARDATZA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTE HARTZEA.

- 3. ardatza. **1. helburua. 2. N. 2. ekintza**

Hezkuntza komunitateari zuzendutako sentsibilizazio kanpainak LGTBI+ errealitateari buruz, LGTBI+ kolektiboarekiko indarkeriazko eta bereizkeriazko jokabideei aurrea hartzeko.

Hezkuntza Departamentuak hasi gabea.

- 3. ardatza. **1. helburua. 2. N. 3. ekintza**

Sexu eta genero aniztasunari buruzko sentsibilizazio ekintzak, adinekoentzako egoitzen erabiltzaileei zuzenduak, egoitzetako erabiltzaile diren LGTBI+ adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzeko.

Eskubide Sozialetako Departamentuak hasi gabea.

- 3. ardatza. **1. helburua. 2. N. 5. ekintza**

Sexu eta genero aniztasunari buruz sentsibilizatzeko ekintzak diseinatzea, lan eremu desberdinetan lan egiten duten pertsoneri zuzenduta; laneko inguruneetan sexu eta genero aniztasunean elkar-bizitza sustatzea.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak baztertu egin du, eskumen arazoak tarteko.

Garapen Ekonomikorako Departamentuak eta NABIk hasi gabe.

- 3. ardatza. **1. helburua. 2. N. 6. ekintza**

Sexu eta genero aniztasunarekin eta pertsonak definitzen dituzten beste gizarte errealitate batzuekin (kultura jatorria, gizarte klasea, etab.) lotutako aurreiritziak hausten laguntzen duten gizarte politiken diseinuan eta garapenean interseksionalitatea sartzea eta hori sustatzea.

Eskubide Sozialetako Departamentuak hasi ez badu ere, lanean ari da ijitoen komunitateari finantzatzeko sexu eta genero gaiak tratatzeko proiektuak.

- 3. ardatza. **2. helburua. 2. N. 2. ekintza**

LGTBI+ kolektiboetan eta erakundeetan parte hartzeko emakumeek aurkitzen dituzten oztopoak lantzen dituzten ekintzak sustatzea, LGTBI+ elkarteetan parte hartzea galarazten dieten oztopoak murriztu eta begien bistara ateratzeko.

NABIn hasi gabea eta Parte-hartze Departamentuak baztertua, bere lana delako aholkularitza eta laguntza eskatzen bazaizkio ematea, parte hartzeko prozesuetan.

4. ARDATZA: LGTBI+ PERTSONENDAKO ARRETA

- 4. ardatza. **1. helburua. 1. N. 4. ekintza**

Nafarroako transexualei laguntzeko eta arreta emateko gidaliburua ebaluatzea eta eguneratzea.

NABInren programa aktiboak:

Zeharkako ekintza hau ez du departamentu batek ere hasi

- 1. ardatza. **1. helburua. 2. N. 8. ekintza**



Seinaleztapena eta errotulazioa Gobernuaren instalazioetan, erabilera komuneko lekuetan, komunetan, esaterako, berdintasuna sustatzen eta bereizkeria, sexu orientazioa, genero adierazpena edo genero identitate sexualagatik ezesten duten irudiekin.

Ez du hasi departamentu batek ere.

5. LABURPEN KOADROA

EKINTZA ZUZENEN berrikuspena DEPARTAMENTUEN arabera 2021ean

ERAKUNDEA ARDURADUNA	2021 ALDIKO PLANEAN AURREIKUSITAK O EKINTZAK	BUKATUT A EDO MARTXAN DAUDEN EKINTZAK	BAZTERTUTAK O EKINTZAK	GAUZATZ E MAILA (%)
ESKUBIDE SOZIALAK				
ESKUBIDE SOZIALAK	4	0	-	% 0
FAMILIA/ADINGABEA K	1	1	-	% 100
NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA	2	0	-	% 0
GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALA				
GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALA	2	0	-	% 0
HEZKUNTZA				
HEZKUNTZA	3	2	-	% 66,66
OSASUNA				
OSASUNA	3	1	-	% 33,33
KULTURA ETA KIROLA				
KULTURA	1	0	-	% 0
KIROLA	1	1	-	% 100
LEHENDAKARITZA, BERDINTASUNA, FUNTZIO PUBLIKOA ETA BARNEA				
GOBERNU IREKIA (PARTAIDETZA)	1	0	-	% 0
NAPI	1	0	-	% 0
BARNEA	1	1	-	% 100
NABI	7	4	-	% 57,14
FUNTZIO PUBLIKOA	1	0	-	% 0
EKINTZAK GUZTIRA	28	10	0	% 35,71

Iturria: guk geuk egina, Nafarroako Gobernuko departamentuek emandako datuetan oinarrituta. NABI (2022).

- **Ohar argigarria:** Departamentu bakoitzeko zuzeneko ekintzen berrikuspen horretan, departamentu guztietako ekintzen batura (28)

Planean 2021erako esleituak (23) zehaztutako ekintzen kopurua baino handiagoa da, ekintza batzuk departamentu bat baino gehiagorentzat baitziren. Hori dela eta, azterketa bietan ageri den ehunekoa desberdina da (% 52,17 eta % 35,71 ekintza kopurua handiagoa baita). Departamentu batzuek zuzeneko ekintzan parte hartu ez badute ere, zeharkako ekintzaren batean parte hartu dute.

Azpimarratzekoa da zeharkako ekintzen ehunekoa (% 85,7), non, gutxienez, departamentu, erakunde edo zerbitzu hauek parte hartu duten:

- Herritarrekiko Harremanak (2)
- Hezkuntza (1)
- Ekonomia eta Ogasuna (1)
- Unibertsitatea, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala (1)
- Familia eta adingabeak (1)
- Migrazio Politikak eta Justizia (1)
- Landa Garapena eta Ingurumena (1)
- Osasuna (1)
- Nafarroako Berdintasunerako Institutua (6).

6. EKINTZAK BERRIKUSTEA – 2019-2021 azterketa bateratua

ERAKUNDEA ARDURADUNA	2019-2021 ALDIKO PLANEAN AURREIKUSITAKO EKINTZAK	BUKATUTA EDO MARTXAN DAUDEN EKINTZAK	BAZTERTUTAKO EKINTZAK	GAUZATZE MAILA (%)
ESKUBIDE SOZIALAK				
ESKUBIDE SOZIALAK	10	1	2	% 10
FAMILIA/ADINGABEAK	2	2	-	% 100
MOTA SASKIBALOI ENPLEGUA	3	1	-	% 33,33
GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALA				
GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALA	2	0	-	% 0
HEZKUNTZA				
HEZKUNTZA	9	6	-	% 66,66
OSASUNA				
OSASUNA	8	3	-	% 37,5
LANEKO OSASUNA	1	1	-	% 100

KULTURA ETA KIROLA				
KULTURA	3	2	-	% 66,66
KIROLA	4	2	-	% 50
LEHENDAKARITZA, BERDINTASUNA, FUNTZIO PUBLIKOA ETA BARNEA				
GOBERNU IREKIA (PARTAIDETZA)	1	0	-	% 0
NAPI	2	1	-	% 50
BARNEA	4	3	-	% 75
NABI	18	14	-	% 77,77
FUNTZIO PUBLIKOA	1	0	-	% 0
NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA	1	0	-	% 0
KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALA	3	3	-	% 100
MIGRAZIO POLITIKAK ETA JUSTIZIA				
JUSTIZIA	4	3	-	% 75
EKONOMIA ETA OGASUNA				
NASTAT	1	0	1	% 0
HERRITARREKIKO HARREMANAK				
NAFARROAKO MEMORIAREN INSTITUTUA	1	1	-	% 100
HERRITARREKIKO HARREMANAK	1	1	-	% 100
LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA				
LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA	1	1	-	% 100
EKINTZAK GUZTIRA	80	45	3	% 56,25

Ohar argigarria: Departamentu bakoitzari esleitutako ekintza zuzenen berrikuspen honetan, departamentu guztietako ekintza guztien kopurua (80) handiagoa da 2019-2021 aldiko planean esleitutako ekintza guztien kopurua baino (64), zenbait ekintza departamentu bati baino gehiagori esleitzen baitzaizkio. Hori dela eta, azterketa bietan ageri den ehunekoa desberdina da (% 56,25 eta % 60,93; ekintza kopurua handiagoa baita).

7. EMAITZEN AZTERKETA BATERATUAREN ONDORIOAK

- 2021ean, ekintzen betetze mailaren ehunekoa % **35,71**koa izan da. Portzentaje hori aise txikiagoa da, 2019-2020 aldiko azterketak eman zuena (% **63,3**) baino. Alde horren arrazoiak dira, besteak beste, LGTBI+ berdintasun zuzendariordetzako buru den pertsona bat 5 hilabetez kanpoan izatea eta kargu horretan pertsona berria prozesua. Hala ere, aldi osoaren azterketa bateratua garapenaren % **56,25** da.
- Garrantzitsua da hemen jasotzea bizi izandako pandemia egoerak nabarmen kaltetu dituela zenbait departamentu, besteak beste Eskubide Sozietako eta Osasuneko Departamentuak eta, bestela ezin izan eta, ahalegin guztiak pandemiaren ondorioak arintzen eman dituztela. Egoera horrek hainbat gairi eragin die, besteak beste, Ekintza Planeko ekintzei.
- Epe osorako (2019-2022), planeko **ekintza “zuzenak” 64 dira** guztira. Bada, horietatik **39** ongi bukatuta daude (2021 arte) edo “bidean”; 3 berriz, departamenturen batek baztertu ditu, ez baitagokie haiei, departamentuaren erantzukizun eremuari dagokionez.
- Ekintzak ezartzeko kronograman, azken ekintzak 2021-2022 aldirako ziren, hau da, 2022. urtean ere egingarriak lirateke.
- Beste batzuek bezala, asmo handiko plana da, LGTBI+ gaitan gure inguruko legedien aldean punta-puntakoa eta oso berritzailea den lege baten isla, eta aldaketa handia eskatzen du departamentuen kontzientziazioan eta prestakuntza ahaleginean, LGTBI+ politikak ezarri nahi badira.
- **Zeharkako ekintzei** dagokienez, nabarmentzekoa da aztertutako bi aldietan izan den partaidetzaren ehuneko handia. Lehenengoan (2019-2020) % **87,5** izan zen, eta bigarrean, berriz (2021), % **85,7**. Kopuru horiek ez dute adierazten departamentu gehienek ekintza guztietan parte hartu dutela, baizik eta planak “departamentu guztiei” (15 guztira) esleitu dizkien ekintza gehienetan (horietako 13tan) departamentu batek edo gehiagok hartu dutela parte gutxienez ekintza horietan.
Portzentajea handia izan arren, beharrezkoa da departamentu guztiek LGTBI+ politikekin eta departamentuak zehar-lerro gisa egituratzen dituzten planeko ekintzekin parte-hartze handiagoa izatea.